

ANDOAIN

- Joseba Egibarren kotxeak erreta
- Izturitzaga dorrea udalaren esku

BILLABONA

- Txirrindularitza omentzeko eskultura

1997ko azaroaren 28a. 69. Zenbakia. 150 pezeta.

Aiurri

Beterri-Aiztondoko Aldizkaria

Argazkia: Ikor Kotx



ELKARRIZKETA

- «Iturri zaharretik» taldea herriko historia biltzen

KIROLA

- Iker Lizarribar Espainiako judo txapelduna

Gazteen deia darra!

fotocolor
ERREBELATUA ORDU
EAN

**ZURE
ARGAZKI
DENDA!**



JOSE IGNACIO UNANUE
JUAN BTA. ERRO 1
20.140 ANDOAIN
☎ 59 43 32

Kodak
EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

SAGARDOTEGIA
JATETXEA

URRITZA

ADUNAN


Sagardotegia, Jatetxea, Erretegia eta Taberna

Urritzak menu hauek dastatzeko aukera eskaintzen dizu:

Asteburuan 1.900 pezetatik aurrera
Sagardotegiko menua 1.750 pezeta

Erreserbak egin daitezke:

Bataioak
Jaunartzeak
Bilerak e. a.



7. Area
Urtaki Industriagunea
(beheko solairua)
20150 ADUNA
Tfnoa: 69 33 96

SILIKONADUN PAPERA

Paper itsasgarri berezia
ekoizten dugu

RELEASE PAPERS

Paper for the
manufacturing of
phenoplastic laminates and
polyester in line

1974. urtean sortutako
enpresa

itasa

Company created
in 1974


INDUSTRIAS DE TRANSFORMACIÓN DE ANDOAIN S.A.

Sorabilla auzoa z/g - 20140 ANDOAIN (GIPUZKOA)

Tel.: (43) 59 24 51 - Fax: (43) 30 06 32

1. AURKIBIDEA
AIURRITARRAK
Joxin Azkue
"Sinesmena ala negozioa?"
2. IRAKURILEAREN TXOKOA
3. LARRAUL
Jexux Mari Irazu bertsolaria.
- 4-5-6. ANDOAIN.
Liburuak katalogatzeko beka.
Joseba Egibarren bi auto erre dituzte.
Izturitzaga dorrea udalaren esku.
7. ASTEASU.
Babes ofizialeko etxebizitzaren lanak.
- 8-9. BILLABONA.
Iñaki de Juana presoak golpatu dute.
Txirrinduaritzaren omenezko eskultura.
10. ZIZURKIL.
Zizurkil goiko lanak.
11. BASERRIA.
Normandiar baserritarrak Alustizian.
- 12-13. ERREPORTAIA.
Gazteen deia darra!
- 14-15. ELKARRIZKETA.
Josea Muguruza eta Mikel Maiz herriko historia biltzen.
- 16-17. KIROLA.
Iker Lizarribar Espainiako Judo txapelduna
Leizaur Zikloturista Taldea.
18. ERRETRATU ZAHARRA
19. BETERRIKO LIBURUA/LEHIAKETA
20. AGENDA

SINESMENA ALA NEGOZIOA?



JOXIN AZKUE

Gauzarik xelebreenak ageritu ohi zaizkigu komunikabideetan. Jakina. Arraroa eta bitxiarena ere ohikoa eta arrunta bihurtzen zaigu. Berriak benetan txundigarria izan beharko du gugan harridura eta jakinmina sortzeko.

Duela egun gutxi irakurri ahal izan dut txundituta utzi nauen horietako bat: erditzeko unean Ama Birjinak azpian zuen harria aurkitu berri dutela. Eta oso serio esaten omen dute gainera. Bejondeiela. Baina horri, xuabe-xuabe esanda, adarra jotzeko gogoia deitzen zaio. Izan ere, nor sinetsi lezake gaur egun horrelako txorakerietan? Non mugatzen dira fedea eta negozioa? Edo Lourdeseko eta Fatimako montajeen antzekoa sortu nahiean dabilta?

Laister dator Ama Birjina Sortzez Garbiaren eguna. Barka naza-tela beste behin ere benetako kristauek: Maria sortze beretik jatorrizko bekaturik gabea izatearen ideia saltzea nahikoa zaila da gaur egungo gure gizarte industrializatu eta konputerizatu honetan. Garai bateko erlikia dirudi. Eta hori munduko errespetu handienarekin diot. Baina elizaren dogmekin topo egiten dugu eta ni ez naiz ez inor eremu horretan sartzeko.

Erlikiak aipatu ditudanez, betidanik harritu nauen gaia dela hori esan beharra dut. Kuriositatez irakurri ditut erlikiei buruz nire eskuetara iritsi diren liburuak eta artikulua. Izan ere, garai bateko gizartea hobeto ulertzeko eta eliza eta herriaren artean izan zituzten erlazioak ezagutarazteko beste bide bat eskaintzen duen gaia dela uste baitut.

Gaurko gure gizarte honen begiek inolaz ere ulertu ezin duten menpekotasun erlazio batetaz ari naiz. Erligioaren aitzakiz izugarrizko negozioa (ekonomikoa zein ideologikoa) montatu zen mendeetan zehar. Azaleko gainbegirada ttiki batek gure buru estresatuari harridura eragiten dioten erlikien mundu majiko-fetixistan murgil gintezke: Ama Birjinaren bularraren esnea dugu, Jesukristoren dozenatik gora prepuzio, Espiritu Santuaren lumak eta arraultzak... eta nahi duzuen abarrik luzeena eta bitxiarena.

Enfin. Gaia polita dela. Eta hurbila ere, Euskal Herria ez baitzen salbuespen izan. Ikusi bestela gure Nafarroako Zangotzako elizan dituzten erlikiak: San Gabriel Arkanjeluaren luma eta Adan modelatu ondoren Jaungoikoari sobratu zitzaion luma. Bitxia, ezta?

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiarzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oiarzabal eta Ainhoa Aiarza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). Lege-gordailua: SS-202/94 ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 2.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



BISITA BAT AIURRI ALDIZKARIRA

Andoaingo Aita Manuel Larramendi Ikastola 6. mailako ikasleok Aiurri aldizkariara bisita eder bat egin dugu. Aldizkaria nola egiten den ikusi ondoren zenbait galdera egin ditugu eta gauza ugari ikasi dugu.

Oso gustora ibili gara eta beste urte batean ere etortzeko prest egongo ginateke.

Larramendi ikastolako 6 B gelakoak.



Txapela

Nik txapela gure eskualdeko bertso-lari gazteei jarri nahi diet, saio politak egin dituztelako eta finalaurreko-etara iritsi direlako. Orain bezain ondo segitzea opa diet,

eta ea norbait finalera heltzen den!

J.O.I. Zizurkil

Makila

Herria txukundu eta herriarrentzako egiten den guztia ondo iruditzen zait.

Azken aldian txakurrek kaka edo pixa kalean ez egi-

teko hartu dituzten neurriak onuragarriak izan daitezke guztientzako baina hara non, Leizaur parkera txakurrak sartzea debekatzen duen kartela erdaraz ezarri dute. "Se prohíbe perros" jartzen duen bi kartel jarri dituzte eta erdara hutsez idatzita egotea salatuta nahi dut. Ez al dugu euskararen alde lan gehiago egin behar?

M.A. Andoain



TXINDOKI-ONTZA PARTIDU IKUSGARRIA

Txindoki eskubaloi taldeak Ontzaren kontra jolastu zuen azaroaren 15ean. Aurreneko atalean Txindokik gaizki eta Ontzak ondo jokatu zuen. Azkeneko zatian Txindokik enpatatu egin zuen "baina arbitroak erosita zegoen puntu bat gutxiago jarri zigun" esan dute Txindoki taldekoek.

Ontzako enpatatutako iritziz ordea arbitroak oso ondo arbitratu zuen. Izan ere, Txindokikoek gola sartu zuten arbitroak baimenik eman gabe. Azken emaitza 10-9 izan zen Ontzaren alde.

Larramendiko 6. mailako ikasleak

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

JOSEBA
ALTZARIAK

KUTXA DE EUSKAL KULTURAN

JEXUX MARI IRAZU:

“TXAPELKETA BERTSO ESKOLEK FUNTZIONATZEN DUTEN SEINALE IZATEN ARI DA”

HERNANIN TOPATU DUGU JEXUX MARI IRAZU. BERTAN BIZI DA GAUR EGUN, NAHIZ ETA ASTEBURUETAN -BATZUETAN BAKARRIK- ETA UDARAN LARRAULERA ETORTZEN DEN, BESTEAK BESTE, BASERRIKO LANAK EGITERA. FILOSOFIA IKASKETAK BUKATU ETA ANTROPOLOGIAKO IKASKETAK EGITEN ARI DA ORAIN. AZAROAREN 30EAN EUSKAL HERRIKO BERTSO TXAPELKETAREN AZKEN FINALAURREKOAN IZANGO DA, BEASAINEN, ETA HORI AITZAKITZAT HARTUTA ORAIN ARTEKO SAIOEN ETA BERTSOLARITZAREN INGURUAN JARDUN GARA LARRAULDARRAREKIN.

Gustura ari al zara txapelketan parte hartzen?

Lehenengo fasea izaten da okerrera, hau da, finalaurdenetara pasa eta finalaurrekoetara iristea. Horra heltzea nahikoa da niretzat. Gehiago egitea da zaila, finalera pasatzea gehiegixoa da beharbada.

Zer moduzko saioak egin dituzu?

Zarauzko saioa, finalaurdenetakoa, polita izan zen. Bertan kantatu genuen Jokin Sorozabal, Sarriegik eta hirurok, eta Besaingo finalaurrekoan ere hirurok hartuko dugu parte. Gainera, finalaren aurreko azkeneko saioa izateak morbo piska bat pizten du, bertan jakingo baita ziur zeintzuk igaroko diren finalera. Baina besteen emaitzak jakitea abantaila nahiz estuasuna izan daiteke kantatzerako orduan.

“Entrenamendurik” egiten al duzu?

Bai. Andoainen elkartzen naiz Sorozabal eta Mendiluzerekin zenbait ariketa egiteko, edota errimak eta antzekoak lantzeko. Azken batean azterketa moduko zerbait da txapelketa, eta txapelketa prestatzen jarduteak gauza asko ikasi eta garatzeko balio digu. Hala ere, txapelketako intentsitate horretan urte osoan funtzionatzea ezinezkoa da, ezin da tentsio horretan bizi.

Zein ari da gailentzen txapelketan?

Egana ongi dabil, baina postua ziurtatzera joan dela iruditu zait, ez duela gehiegi arriskatu alegia. Jon Maia oso ongi dabil, baita Iturriaga ere. Iturriagari asko exigitzen ari zaizkio, bizkaitar gutxiago dagoelako eta bitan Bizkaiko txapelduna izan delako nonbait!



“TXAPELKETA PRESTATZEN JARDUTEAK GAUZA ASKO IKASI ETA GARATZEKO BALIO DIGU”

Bertso eskola bakarra dugu orain bailaran, Zizurkilen. Zuk ere batean baino gehiagotan hartu duzu parte, ezta?

Tolosakoan eta Hernanikoan hartu izan dut parte, oraindik ere joaten naiz batzuetan. Bertso eskolek bertsolariak badatoziela adierazten dute, baina eskolen inguruan giroa sortzea falta da, bertso eskolako jendea elkartuko duen bertsozale giro bat osatzea. Azpimarratu beharrekoa da aurtengo txapelketa hau bertso eskolek funtzionatzen dutenaren seinale izaten ari dela, bertso eskoletan aritutako bertsolari bat baino gehiago pasako baita finalera.

➤ HARPIDEDUN EGITEKO BETE EZAZU TXARTELA LEHENBAILEHEN ETA BIDA-LI GURE EGOITZARA EDO DEITU 300732 TELEFONORA!

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.

Helbidea:

Kontu korrontearen zenbakia:

Kodea: Herria:

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Lanbidea: Jaiotze data:

Tokia. data eta izenpea:

Etxeko☞ : Laneko☞ :



Roke Ansa



Carlos Almorza
epaia

ETAren iraultza zergaren sarearekin lotura izana leporatu diete Carlos Almorza andoaindarrari eta Jose Maria Dorronsorori. Horregatik, Parisko Auzitegi Korrekzionalak 10 urtetako gartzela zigorra ezarri diete bie. Beraiekin batera epaitu dituzten beste hamabi lagunetatik hamarri kartzela zigorra ezarri diete ere.

Jubilatu
*tabernako
tabernariari
kontratua*

Eguneko egoitzan dagoen jublatu tabernan lan egiteko eskaerak jaso eta aztertu ondoren, jada urtebete lan horretan aritu den Alvaro Iraztorza lasartearra izango da hurrengo bost urtetan tabernaz arduratuko den langilea. Taberna egunero irekiko du, goizeko 10:00etatik 21:00etara. Egun berezietan eta langileak udalari haimena eskatuz gero, taberna ixteko ordua gaueko 22:00ak arte luzatu dezake.

Liburutegiko liburuak
katalogatzeko beka

Bibliotekonomia eta dokumentazio ikasketak egin edo egiten ari diren ikasleei zuzendutako beka, liburutegiko liburuak katalogatzeko da. Beka deialdira aurkez daitezkeen pertsonen 18 urtetik gorakoak izan behar dute. Horrezaz gain, oinarrizko euskara maila izan beharko dute. Lehiakideen artean Andoainen erroldatuta dauden pertsonen izango dute lehentasuna. Lanari dagokionez, haur saileko 2.800 liburu katalogatu beharko ditu beka hartzaileak, eta horretarako zortzi hila-beteko epea izango du. Dokumentazioa aurkezteko epea abenduaren 9tik 12ra izango da, Urigain Kultura Etxean goizeko 10:00etatik 13:00etara bitartean. Informazio gehiago 300823 telefonora deituta

**ANDOAINGO
BERTSOLARI EGUNA**

1936. urteko Garagarrillaren hamaikan (gaurko ekainean) ospatu zen Bertso egun hau arratsaldeko 17:30etan. Lau saiotan abestu zuten bertsoa egun horretan parte hartu zuten hamaika bertsolariak. Donostiako egunkaria zen "El Dia"ren esanetan bertsolari gudu ikusgarria egin zen Andoainen egun horretan: "Beñere orrelakorik gertatu ote da Euzkadi guxian? Exetz deritzaigu..."

Ez andoaindarrak bakarrik gipuzkoar bertsolari-zale asko bilduko dirata gaur orri orretan deritzaigu.

Gure Andoaingo Euskaltzaleok, jai onen gartatzale diranci, zorion gartsuenak damazkiotsegu."

Bertsolariak hauek ziren: Etxeberria (Merdillegi), Joxe Ormazabal (Lubarritza edo Labanitz), Juan Ignazio Laka (Beltza), Ramon Olasagirre (Berrospe), Joxe Zipitria (Itxaso edo Kokka), Joxe Migel Larrañaga (Ubalategi txiki), Joxe Aldasoro (Bentaberri), Inaxio Etxeberria-Uсандizaga (Amanene edo Kaxkabeltza), Pedro Mugika (Benezi), Antonio Elola (Ixkurra) eta Bartolo Otegi (Apakintza).

Hona hemen egun horretan abestutako bertsoa:

*Etxeberri ta Laka
Lubarritza urrena
Ta Berrospe laugarren
Or lauko onena,
Otaegi, Benezi
Gero Amanena,
Ondoren beste laurak,
Iñor ez azkena.*

Mutiko bat nintzen ni oraindik eta nahiz eta ez nintzen bertso saio horretan egon, "Argia" aldizkaritik jarraitu nuen bertso gudu hau.

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**IRKOLAN
EDURNE**

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN



ILLUMBE, S.L.
*Auzoak eta...
Autokar...
Autobus...*

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK

Pablo Gorosabel, 48

☎ 65 54 76 **TOLOSA**

Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa

☎ 59 24 11 **ANDOAIN**

JOSEBA EGIBARREN BI AUTO ERRE DITUZTE

“XABIER EGUNA” AITA MANUEL LARRAMENDI IKASTOLAN

Aita Manuel Larramendi Ikastolako ikasle eta irakasleek urtero, abenduaren 3an, jaialdi eder bat ospatzen dugu zaindari den Xabier deunaren omenez. Bertan, jokuak, bertsoak, antzerkiak, partiduak... egiten dira eta ikasle eta irakasleek gogo onez eta giro alaian ospatzen dugu egun hau. Dirudienez, Xabier deuna atzerrian hil zorian zegoelarik hizkuntza arraro batean mintzatu omen zen: EUSKARAZ. Bejondeiola! Hau dela eta, gure ikastolak Xabier deuna zaindaritzat hartu zuen.

Aurten, ikasketa planak horretara bultzatu gaituenez, abenduaren 5an, ostiralean, ospatuko dugu Xabier eguna. Eguraldiak lagun gaitzala!

*Aita Manuel Larramendi
Ikastola*



Azaroaren 17an, goizaldeko 1:30etan, Joseba Egibar EAJ-PNVko bozeramailearen autoari (Opel Midi furgonetari) eta alderdiaren beste auto bati (Audi A-4 autoari) su eman zioten ezezagun batzuek. Kaletxiki auzoan aparkatuta zeuden bi auto horietaz gain, ondoan zegoen Peugeot 309 auto bat ere kalteua izan da.

GAITZESPENA

Eraso hori ezagutu bezain pronto EA, PSE-EE, PP, IU-EB eta UA alderdi politikoek eraso hori gaitzetsi egin zuten. EAJ-PNVek ohar baten bidez Herri Batasunari sabotaia salatzeo duintasun eta autonomia politiko apur

bat eskatu zion. HBk ez zuen eraso gaitzetsi.

Andoaingo Udaleko EAJ-PNV, PSE-EE, EA, PP, eta IU-EB alderdiek Joseba Egibarren autoen aurkako eraso salatzea eskatu diote HBri. “Eraso horren bidez andoaindar guztiak erasotuta sentitzen gara” adierazi dute.



ANDOAINGO GAZTETXEAREN 12+1 URTEMUGA

Azaroaren 22tik 30ra bitartean hamaika ekintza antolatu dituzte

Urtero bezala gaztetxearen urtemuga ospatu asmoz musika, antzerkia, bertso eta pelikula emanaldiak izango dira ikusgai, besteak beste, Andoaingo gaztetxean (Etxeberrietan).

Ostirala 28

- Sr. No eta Nuevo Catecismo Católico-ren kontzertua 21:30etan.

Larunbata 29

- Gutariko Bat eta El Corazón del Sapo taldeen kontzertua 21:30etan.

Igandea 30

- Andoaingo Gaztetxea eta Buenavixtako selekzioen arteko futbol partidua goizeko 11:00etan.
- Bazkaria 14:00etan. Ondoren Magia Artxila Mortxilarekin.
- Kalejira 19:00etan.
- Kontzertua 21:00etan.

M Talleres Mendi S. L.
Burdinezko piezen egintza, planuen araberakoa.
Pieza hidraulikoak eta neumatikoak.
Mekanizazioa.
Urnietako bidea, z/g. ANDOAIN
☎ 59 04 52 - 59 05 08

S T O P
LIBURUDENDA
TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingelesez, frantsesez, italieraz...)
Agustín Leiza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

GoiKO
OPTIKA
60 urte gorakoentzat eskaitza:
armazoa + kristalak = 8.500 pta.
Arteta z/g - 20140 ANDOAIN
☎ 590955

IZTURITZAGA DORREA UDALAREN ESKU

**IZTURITZAGA DORREA EROSTEKO ASMOA
ASPALDITIK ZUEN ANDOAINGO UDALAK.
AZKENIK, DORRETXEAREN JABEAK ETA
UDALA AKORDIO BATERA IRITSI DIRA
ETA IZTURITZAGA EROSTEAGATIK
30 MILIOI ORDAINDUKO DU UDALAK.**

Kultura Batzordeko lehendakaria den Garbiñe Egibarren esanetan dorretxea konpontzea izango da lehen eginbeharra: "Dorretxea erosi dugu eta orain gauzarik garrantzitsuenen teilatua eta teiltatupea konpontzea da". Izan ere, dorretxearen goialdea egoera kaskarrean dago. Dorretxea txukuntzeko eta konpontzeko lanak hemendik hilabete batera egiten hasiko dira. Konponketa lan horiek egiteak 38 milioi pezetako kostua izango du.

BERRERABILPENA

Izturitzaga dorrea erosi eta konpondu ondoren, dorretxearen funtzioa zein izango den oraindik erabakitzeke du Kultura Batzordeak: "Zenbait eskaintza izan ditugu baina oraindik ez dugu ezer erabaki. Beste zenbait herrietan horrelako etxeak jatetxe, museo edota hotel bihurtu dituztela ikusi dugu. Guk, eskaintza horiek aztertu ondoren, erabakiko dugu zein erabilpen eman Izturitzaga dorreari" adierazi digu Egibarrek.



Bertso saio kaxkarr

Hilaren 23an Igorren egin zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko bigarren finalaurrekoan parte hartu zuten bertsolariak ez zuten oso saio ona egin. Aitor Mendiluze andoaindarrak hirugarren postuan sailkatu zen, 788 punturekin. Bertso oso onak egin zituen baina bi poto ere egin zituen ez zuen oso puntuazio ona lortu. Jokin Sorozabalek herriz, hilaren 30an Beasain jokatu den hirugarren finalaurrekoan hartuko du parte.

Jaiotza lehiaketa

Urteroko legez Andoaingo Udaleko Kultura Batzordeak XV. Jaiotza lehiaketa antolatu du. Partehartzaileek Andoain jaiotakoak edota bertan bizi direnak izan beharko dute eta adinari dagokionez, zazpi urtetik gorako guztiek har dezakete parte. Lanak ezingo dute 50x50 cm. baino handiagoak izan eta Ambrosia Olabide eguneko egoitzan utzi beharko dira abenduaren 17an. Informazio gehiago Andoaingo Urigain Kultura Etxean.



Santa Krutz elizaren 25. urtemuga

Sanra Krutz elizak 25 urte betetzen ditu aste honetan eta hori ospatzeko hainbat ekintza antolatu dira. Hogeita bost urte horietako balantzea egin eta etorkizuna aztertzeko bilera egin berri dute. Bihar, larunbatean, arratsaldetako 19:00etan meza izango da Alberto Agirre abesbatzaren laguntzarekin. Azaroaren 30an, igandean, goizeko 8:30etako ohiko mezaz gain, eguadiako 12:00etan ere meza izango da eta Alberto Agirre abesbatzak abestuko du bertan. Ondoren, hamaiketako egingo dute bertan biltzen direnen artean.

ARANBURU
agentzia
Aseguruak - Aholkularitza
PROFESIONALAK GARA
Kaleberria, 26 behea
☎ 59 08 14
Fax-a: 59 24 03
ANDOAIN *winterthur*

FERRETERIA
GOROSTIDI
BURDINDEGIA
SUKALDERAKO TRESNERIA
Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN
Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

Munikost
LIBURUDENDA
PAPERDENDA
Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN

Komun publikoak jartzeko lanak

Udaletxeko beheko solairuan, egun almazena dagoen lekuan, bi komun egingo dituzte urtea amaitezako. Gizonetzko eta emakumezkoentzat komun bana egingo dute, eta elbarriek erabiltzeko moduan egingo dituzte gainera. Kultur Etxearen sarrera dagoen udaletxearen aldean jarriko dute komunaren sarrera.

Sendagilearen kontsultaren antolaketa berria

Kultur Etxearen sarrera erabat aldatuko dute. Sarrera bitan banatuko dute eta alde bat Kultur Etxera sartzeko bidexa izango den bitartean, bestea sendagilearen kontsultako itzarongela berria izango da. Guazak horrela, egungo itzarongela erizaina egoteko gela izateko egokituko dute. Kontsultan egoten diren bi sendagileek bulego bana izaten jarraituko dute. Lan horiek ere urtearen amaierarako amaituko dituzte. Bestalde, gogorarazten dizuegu Victorio Tapiz sendagilea egunero goizeko 9etatik 13etara kontsultan egoten dela.

21 kotxe aparkatzeko lekua

Aparkamenduak egiteko lanak bukatzen ari dira Elizmendingin, Gabonetarako amaituko dituzte lanak. 21 kotxe aparkatzeko lekua izango da aparkaleku berrian. Aparkalekua egitea beharrezkoa zela esan digute Asteasuko Udalean, eskolara nahiz elizara doan jendea kotxea uzteko leku faltan izaten baitzen askotan. Kotxea aparkatzeko lanak egiteaz gain jendea esertzeko eserlekuak eta zakarrontzi bat ere jarriko dituzte bertan.

Ludoteka Lizardi Etxean

Bi, hiru eta lau urteko haurrek jolasteko leku berri eta eroso bat izango dute aurrerantzean. Neguko eguraldi txarra ez da izango jolasteko oztopoa. izan ere, ludoteka jarri dute Lizardi etxean. Astearte eta asteazkenean izango dute haurrek bertan jolasteko aukera, arratsaldeko lauretatik zazpiak bitartean. Joku asko eta jolasteko lekua duen gela bat egokitu dute Lizardin horretarako.



BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN LANAK



Pilotaje lanak egiten.

Babes ofizialeko 12 etxebizitza egiteko lanak egiten hasi dira. Udaletxean eraikiko dituzte etxebizitza horiek, eta orain, pilotaje lanak egiten ari dira. Pilotajea, etxeak eraikiko dituzten lursailan ur asko dagoelako eta lurra ezegonkorra delako ari dira egiten; pilotajea egiten dituzten zulo sakonen bitartez lur sendoagoa aurkitu nahi dute etxebizitzaren oinarriak sendo ezartzeko.

BI MILIOI INGURUKO GARAJEAK

Etxebizitzez gain, 17 garaje egingo dituzte, horietatik 7 babes ofizialekoak. Babes ofizialeko hiru garaje salgai daude oraindik, 28 m² ingurukoak eta bi milioi eta berrehun mila pezeta inguru balio dute.

IÑAKI DE JUANA PRESOA GOLPATU DUTE

Amnistiaren Aldeko Batzordeak adierazi digutenez, Billabonako Iñaki de Juana preso politikoa golpatu egin zuten Valdemoroko espetxetik Melillako espetxera bidean. Jaengo espetxean geldiuene bat egin zuten, eta bertan, hiluzteko esan zioten presoari. De Juanak bata bat emateko eskatu zuene-

an, hasieran gartzela funtzionario bat eta gero beste zazpi, presoak golpatzen hasi zirela esan digu Amnistiaren Aldeko Batzordeak. Iñaki de Juanak safaketa jarri zuen jaso zituen golpeak zirela eta.

ALKATEAREN GESTIOAK



Joxi Mujika alkateak Jaengo espetxera eta espetxe instituzio gehiagotara deitu du presoaren egoeraz eta gertatu zenaz galdetzeko. Jaso duen erantzuna gartzela espainiarretan presoarik ez dela jipoitzen izan da. Amnistiaren Aldeko Batzordeak alkatearen ekimena eskertu du.

ZALAKAINI OMENALDIA

Migel Zalakain omentzeko ekitaldia egingo dute Belabietan, Migelen omenez jarritako oroigarria dagoen lekuan, azaroaren 30ean. Zazpi urte bete bete dira Migel Martuteneko gartzelan hil zela, "mediku asistentziarik eskaini ez ziotelako", adierazi digu Amnistiaren Aldeko Batzordeak.

Eskolorduz kanpo euskaraz

Eskolorduz kanpoko jarduerak antolatzen dituzten elkarte, udal erakunde eta ikastetxeek zenbait konpromezu hartuko dituzte gaztetxoak kalean euskara erabiltzera bultzatzeko. Izan ere, eta irakaskuntzaren eraginez euskararen ezagutza handitu egin den arren, erabilpena oraindik nahikoa urria da kalean. SIADECOk elkarte guztiekin elkarriketak izango ditu bakoitzaren egoeraren eta beharren berri izateko. Ekimena Billabonako Udalarena izan da.



Amaia Aquirre

BERRIAK ZIRI

BILLABONAN BADA ZER HOBETU

Ezer baino lehen esan dezadan ez naizela jarraian egingo ditudan kritika txiki hauek egiteko pertsonarik egokiena, baina Billabonako herritar naizen aldetik, gure herriaren onurarako baliagarri izango liratekeen zenbait aldakuntza eskatzea zilegi zaidala deritzat. Billabonako karretera nagusian, hots herria zeharkatzen duen bidean, bada orain hilabete batzuk eraikitako biribilgu (rotonda) ezohiko bat, Tolosarako irteera bidean, Larrea eta Arroa auzoen artean hain zuzen. Gauza jakina da trafikoa noiznahi dabilela bide horretan eta abiadura azkarra dela medio arazoak ezezik istripuak ere jazo zirela eta gerora ere gerta zitezkeela, baina craiki zuten biribilgu edo rotonda horren neurriak sortu du zer esan eta istilurik. Arazo bat ekidin nahi eta bestea ekarri, autobus nahiz kamioi handiek zer nolako arazoak eta eragozpenak dituzten ikusi besterik ez dago.

Esan dezadan, bidenabar, Billabonako beste leku batek ere sortzen didala zer pentsatua, Txermin auzotik abiatuz Arratzain bidean dagoen zubiak ere bai baitauka aldaketa premiarik. Autobia gaineratik zihoala eta eraikitako zubia dugun honetan argitasunik ezak baitakartza eragozpenak. Egun argitan nahiz gauean, zubiaren sarrera eta irteera itxiak izateaz gain, zubipean oinez nola txirrinuz doanarentzat, iraganbidea ez da batere eroso. Ikastetxeko ikasleak eta futbol entrenamenduak izaten dituzten gazteak ezezik, hainbat jende igarotzen da zubipe horretatik eta argi batzuk jartzea ezinbestekoa dela iruditzen zait, istripuren bat gertatu ondoren neurriak hartzen hastea alferrik baita. Eginda asko dagoen arren, egiteko asko falta da oraindik ere.

Konpromezu horietako batzuk elkarte bakoitzaren euskarara arduradun bat izendatzea, euskararen ezagutza eta erabilpenari buruz helburu zehatzak finkatzea, udal euskara zerbitzuaren eskaintzaz baliatzea eta elkarte bakoitzaren oztopoak, beharrak eta gaitasunak ezagutzea dira. Bestalde, bi hitzarmen maila ezberdin daude (ia guztia euskaraz egitekoa edota euskarari lehentasuna ematekoa), eta elkarrekin hitz egin ondoren norberak erabakiko du zer konpromezu hartu.

TXIRRINDULARITZAREN OMENEZKO ESKULTURA**Jabier Maria Garbizuk egingo du**


Billabonako Udalak antolatutako lehiaketara bere lana aurkeztu zuen Jabier Maria Garbizuk, hots, txirrindularitza gaitzat duen eskultura multzoa egiteko proposamen bat aurkeztu zuen. Lana aurkeztu eta irabazle suertatu zen; 3 milioi jaso ditu sari nahiz eskultura egiteko diruiturri moduan. Lehen N-1 errepidea izandako egungo pasealekuan jarriko du eskultura, lehen bihurgune arriskutsua zen leku berean.

**KIROLZALETASUNA
ADITZERA EMAN**

Jabierrek luzeran 20 metro neurtuko dituen eskultura multzoa egingo du. Txapa eta tubo metalikoe-kin egingo du eskultura, eta eskultura multzoa bitan banatuta jarriko du; zati bat bide gorriaren alde batean eta bigarren zatia bestean jarriko du. Alde batean bizikletaren hiru errueda handi eraikiko ditu, eta bestean berriak bakarrik. Errueda horiek txirrindularitzaren dinamismoa adierazten dute. Erruedetan txapaz eginiko giza aur-

pegia handiak egingo ditu, bakoitza kolore batekoa. Giza aurpegi horiek txirrindua eta gizonaren arteko harremana irudikatzen dute, eta batera agertzen diren hirurak "txirrindulariak" izango diren bitartean, bakarrik egongo dena "ikuslea" izango da. Bien artean pasako den herritarrak es-

kulturak ikusteaz gain, eskulturek bera begiratzen dutela ikusiko du. Aipatu beharrekoa da aurpegi horien lau koloreek, beltzak, gorriak, zuriak eta horiak, kirolarien arraza ezberdinak irudikatzen dituztela.

**J. IÑAKI ORMAZABAL
BILLABONATARRAK
ACCESITA IRABAZI
DU**

Lehiaketa berean 150.000 pezetako bi accesit eman zizkieten beste bi proposamen hoberenei, baina eskultura horiek ez dituzte pasealekuan ezarriko, eta seguruenik, ezta egingo ere. Jon Iñaki Ormazabal billabonatarrak irabazi zuen accesitetako bat, bestea Emilio Velillak jaso zuen.

Zabala
Ordukari Bitxitegia

RACER
TISSOT

LOTUS
SEIKO

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

SAHATSA

BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Kale Nagusia, 28 - Tfnoa.: 69 40 63 -Billabona

LEIZARAN
MARKOZKETA TAILERRA S.L.

Kaleberria, 40
20140 ANDOAIN
TEL.: 59 33 39
FAX. 30 01 57

OLEOAK, MARRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK

ZIZURKIL GOIKO LANAK

Zizurkil goian zebra-bide mokordunak jartzeko lanak bukatzeaz daude. Bi jarriko dituzte, egun haurrek eskola jasotzen duten lokalaren ondoan. Izan ere, eta San Millan eskolako lanak bukatu bitartean, udaletxe parean dagoen lokalean ari dira eskola jasotzen haurrak. Eta, haurrak arriskuan ez jartzeko, kotxeak abiadura murriztera behartuko dituzten zebra-bide horiek jartzearabaki du udalak. Izan ere, abiadura bizian ibiltzen dira bertatik kotxeak.

SAN MILLANGO LANAK EKAINERAKO AMAITUTA

San Millan eskola goitik behera aldatuko dute ikasturte amaierarako. Eskolaren egitura mantendu egingo duten arren, teilatu berria jarri, leihoak berritu eta margotu ere egingo dute eskolaren kanpokaldea. Barruan herriz, aldaketa

handiak egingo dituzte, guztia berrantolatuko dute. Beraz, orain arteko gelak beste era batekoak, eta gainera, berriak ere egingo dira. Era berean, material modernoagoz hornituta egongo dira gelak. Lanak bukatu bitartean Iriarte etxean eta udaletxe pareko lokalean antolatu dute behin behineko eskola.

ZAHARRAK BERRI



Serapio Mendizabal

ASTEBURUAK ETA BAILEAK

Garai batean ez zen gaur egun bezala asteburu osoa jai izaten, ez horixe! Lehen, baserrian, igande eta larunbateran lan egiten genuen. Baserrikoak gara eta baserrian beti izaten zen lana. Igande arratsaldetako bailera joaten ginen ordea. Billabonan musika bandak jotzen zuen igande arratsaldetan. Lehen plazak aise betetzen ziren musika egonez gero, baita dantza gogotik egin ere! Zizurkilgo Kortajarena eta beste gizonetzko batzuk oso iaioak ziren dantzari, festetan dantza saio politik egiten zituzten. Herrian tuntuna joz eta orkestraren musikarekin osatzen zen festa: aurrena tuntunarekin 3 pieza jotzen zituzten, eta gero, orkestrak beste musika pieza batzuk eskaintzen zituen. Sueltoan eta balsean egiten genuen dantza. Garai batean, gainera, oinez egiten genuen bidea, Billabonara oinez jaitsi eta ostera Zizurkil gora oinez igotzen ginen behin festa amaituta.

San Millan eguna

Meza nagusiarekin hasi zuten San Millan eguna Zizurkil goian. Hilaren 6an izan zen ospakizuna, eta mezaren ondoren, Txomin Garmendia eta Joxe Lizaso aritu ziren bertsotan. Bertsolarien saioa bukatuta Tapia eta herriko trikitilari gazteek alaitu zuten giroa. Ordubiak aldera Plaza Etxeberri jatetxean bildu ziren



bazkari legea egiteko. Giro ederra izan zuten bazkarian zehar eta bazkalostean, bertsolari eta trikitilariak egunari doinua jartzen jarraitu baitzuten.



BRONTE OPTIKA

JUBILATU ETA PENSIONISTENTZAT
ESKAINZA:
ARMAZIOIA KRISTALEKIN: 7. 900 PTA.

Kaleberria, 36 - ☎ 692525 Billabona
LAISTER TOLOSAN DENDA BERRIA!
Nafarroa Etorbidea, 20 - ☎ 651486



BRONTE ORTOPEDIA

NEURRIRA EGINDAKO ORTESIAK,
PROTESIAK ETA PLANTILAK
TAILERRA BERTAN

OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA
Kaleberria, 36 - ☎ 692525 Billabona
LAISTER TOLOSAN DENDA BERRIA!
Nafarroa Etorbidea, 20 - ☎ 651486

BASERRITARRENTZAT IKASTAROAK

HOBETUZ langileen prestakuntzarako euskal fundazioaren eta FORCEM elkartearen laguntzaz, baserritarrei zuzenduriko 8 ikastaro antolatu ditu EHNE sindikatuak. Ikastaroak izena ematen dutenen herri edo eskualdetan antolatuko dira. Izena emateko epca zabalik dago oraindik, horretarako eta informazio gehiagorako 653568 edo 653590 telefonora deitu.

- 1- Lora lehorren ikastaroa: Loreak kontserbatzeko eta apaingarriak egiteko teknikak erakutsiko dituzte ikastaroan.
- 2- Ogigintza: Ogia etxean egiten ikasteko.
- 3- Sendabelarra eta kosmetika naturala: Produktu naturalez sendagaiak egiten ikasteko edota sendatu egiten duten produktuak ezagutzeko aukera izango da ikastaro honetan.
- 4- Postregintza: Baserriko produktuekin egin daitezkeen plater goxoak ikasi ahal izango dira.
- 5- Nekazari ustiapenen gestio eta fiskalitatea: Ustiaketaren gestioa ongi egiteak garrantzi handia du gaur egun. Hori behar bezala ikasteko aukera izango dute ikastaroan izena eman dutenek.

- 6- Nekazaritza produktuen komertzializazioa eta marketina: Baserri produktuak ongi saltzeko ikasi beharrekoak ikasiko dira ikastaroan.
- 7- Nekazaritza gidariak, talde dinamika eta komunikazioa: Jendearekin eta saltzaile-erosleekin ongi komunikatzeko ikasi beharrekoak irakatsiko dira.



Normandiar baserritarrak Amasan

Hilaren 21ean 30 Normando etorri ziren Amasako Alustiza baserrira EHNEk gonbidatuta. Artzain baten etxea eta lanbidea ezagutzeko izan ziren Alustizan bisitan eta bazkaritan. Aurrez Bizkaiko eta Errioxako baserri eta ustiakuntza gehiago ezagutu zituzten, ia astebete pasa baitute Euskal Herrian. Hemengo baserrietan dagoen lur eskasiak kezkatu eta harriturik utzi zituen.



GOROSTI
HERBORISTERIA

- TERAPEUTA
- DIETA PERTSONALIZATUAK
- AKUPUNTURA
- MEDIZINA TXINATARRA.
- PRODUKTU ETA JAKI DIETETIKOAK
- LANDARE ETA PRODUKTU TXINATARRAK.

Txermin kalea 13, behea
☎ 69 20 56
BILLABONA

VAC
VAC

HOL-ATZ



VACSOL - WR[®] TRATAMENDUA EGURRARENZAT

**PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA**

Elbaterena. 7/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA!!

Kaleberria 22
Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

Gazteen deiadarra!

GAZTETXE BANA DAGO ANDOAIN, BILLABONA, ZIZURKIL ETA ASTEASUN



Argazkia: Koldo Otamendi

ANDOAINGO BETE- RANOAK, 12+1. UR- TEMUGA OSPATZEN

Gaztetxearen 12+1 urtemugako ospakizunak prestatzen topatu ditugu Andoaingo gaztetxeakoak. Urtemugari hain zenbaki xeblea jartzeko arrazoiak ez da izan 13. zenbakiak duen fama txarra, "gaztetxe zaharrean 12 urte eta oraingo honetan lehenengo urtea daramagula izan da zenbaki hori jartzeko arrazoiak", esan digute gazte andoaindarrek. 1984. urtean hasi zen funtzionatzen Andoaingo gaztetxea, Euskal Herriko gaztetxerik betaranoenetakoa izan da. Musika talde asko pasa dira gaztetxetik, bertakoak nahiz kanpokoak. Santakruz jaietako antolaketak eta ekintza ugari ere hartu dute parte gaztetxeok. Egun, gaztetxea bota eta etxebizitza berriak ari dira egiten Aingurasutegi kalean.

GAZTETXE HITZAK ESANAHI EZBERDINA IZANGO DU, ZIURRENIK, GAZTE, HELDU, AGINTARI, IKASLE, ETXEKOANDRE, ASTEASUAR EDO ANDOAINDARRENTZAT. IZAN ERE, ETA GUZTIAK GAZTEAK ELKARTZEN DIREN LOKALAK IZAN ARREN, GAZTETXE BAKOITZA MUNDU BAT DA. MUSIKA ETA GAZTEAK DIRA GAZTETXE GUZTIETAN PROTAGONISTAK, ETA DROGA ETA ISTILU KONTUAK BERRIZ, GAZTETXEEN AURKA ENTZUTEN DIREN ESAMESEN MUINA. GURE BAILARAKO GAZTETXEETAN SARTU GARA BERTAN DAGOENAREN BERRI IZATEKO, ETA BIDEBATEZ, GAZTEEN DEIADARRA ENTZUTEKO.

Ondorioz, Etxeberrietako eskola Andoaingo gaztetxe berria bihurtu da. Gaztetxe zaharra etxebizitza egiteko bota behar zutela-eta, bazekiten gazteek bertatik alde egin behar zutela. "Urtebetez udalarekin negoziatzen aritu gara gaztetxe berria zein izango zen erabakitzeko. Baina gaztetxea hustu behar genuen eguna baino lehenago, gaztetxe barruan jendea eta gauza asko zeudela, *istripua* gertatu zen eta gaztetxea erori egin zen. Horren ondorioz


berehala eman ziguten Etxeberrietako lokala eta kontopontzeko 5 milioi emango zizkigutela agindu ziguten", diote gazteek. Udalak esanak ez dituela bete eta kexu dira gazteak. Izan ere, lokala eduki arren ez dute jaso lanak egiteko ez baimen eta ez dirurik. Beraz, gauza ugari egiteko, kontzertuak adibidez, mugaturik daude: "Ondorioz, zaila da jendea gaztetxera etortzea, ez baitago ezer askorik". Pin-ponean jolasteko mahai bat eta egoteko leku

lasai bat dute gaztetxean. Hailere, gauzak egiteko gogo handiak dituzte, "60 lagunetik gora biltzen gara asanbladetan". Eta proiektua eginez gero, Etxeberrieta eskolako patioa itxi egingo lukete bertan kontzertuak egiteko eta taberna jartzeko. Horrez gain, rokodromo bat, egongela handi bat eta bilerak egiteko lekua jarri nahi dituzte goiko geletan. Auzoan ere integratu nahi dute, "bertako gazteak hurbildu dira gaztetxera", eta noski, asanbladetara eta gaztetxera nahi duen edonor joan daiteke. Helburua gazteek beren asmo eta nahiak aurrera eramateko leku bat edukitzea da, "bakoitzak dituen proiektuak aurrera eramatea".

HERRI TXIKIETAKO GAZTETXE JAIO BERRIAK

Zizurkilgo gaztetxeak urte bat bete du aurtengo irailean.

Elizaren atzean dagoen lokal txiki bat da zizurkildarren gaztetxea. Lizarain lantegia okupatu zuten gazteek udalak oraingo lokala eman aurretik, "udalak lokalik ematen ez zigula ikusita okupaziora jo genuen". Izan ere, 1992an sortutako Kostata gazte asanbladak behin baino gehiagotan eskatu dio udalari lokal bat, "Kultur Etxean ordutegi eta leku aldetik mugatuta aurkitzen baikinena". Gazte asanblada horrek ostiralero egiten ditu asanbladak. Urte hasieran urteko plangintza egin eta ekintza berri gehiago erabakitzen dituzte asanblada horietan, "jendeak proposatzen dituenak". Azaroaren 29an kros herrikoia antolatu zuten, eta Gabonetako gaztain jatea, hitzaldiak eta mendi irteerak urtero antolatzen dituzten ekintzak dira. Gainera, Tolosaldeko gazte asanblada gehiagorekin harremanak dituztela eta ekintza bateratuak egiten dituztela esan digute. Cuztira 40 gazte inguru biltzen dira gaztetxean, "herriko gazte guztiak daude gonbidatuta", eta, mota, ideia eta adin ezberdinetakoak dira. "Jendeak, gaztetxea eta bertan biltzen garen gazteak ezagutzen ez dituen jendeak, badu gudan mesfidantzarik. Baina ezagutzen gaituztenok gureganako iritzi ona dute". Proiektuen artean gaztetxea handitzea eta ekintza gehiago antolatzea dituzte eskuartearen, eta gazteen pasibitatea eta beren arteko harreman gabezia dira kezka sortzen dieten auziak. Asteasuko gaztetxe edo gazte lokal berria aurtengo San Pe-



drotan jaio da. Elizmendingin, ordea, bazen lehen gaztetxe bat. Baina Santa Krutz ermitan egin zituzten auzolanderiak zirela-eta itxi eta harrez gero ez dute gaztetxea berriro zabaldu. Esan daiteke beraz, oraingo gaztetxea Asteasuko Gazte Asanblada biltzen den lokala dela. Herri erdian dagoen lokal hau udalak utzi zion sortu berri zen gazte asanbladari herriko jaietan taberna jartzeko. San Pedrotako taberna izateaz gain, Asteasuko gazteen bilgunea da orain lokala. "Udalaran, udara aurretiko bilere-tan baino jende gutxiago bildu gara, eta, gaudenak garela eta ekintzak nahiz bilerak guk egitea erabaki dugu". Finean, jendea mugitu zain ez direla gelditu eman digute aditzera gazte asteasuarrek. Baina bilerak eta lokala herritar gazteei irekita daudela esan digute, gainera, jendea bertaratzea ani-

matzen dute. Txalaparta ikastaroa, pin-pon eta joku gehiagoren lehiaketak eta gauza gehiago antolatze-kotan dabilza. "Izan dugun ezulertzetako bat, hemen norberak berak nahi dituen kartelak eta pegatinak jartzeko duen eskubidea izan da. Hau da, norbaitek hemen zer-bait jartzeak ez du esan nahi guztiok horrekin ados gaudenik", esanez amaitu dute lehen plazako hankuak, eta orain, aspaldiko sagardotegia zena bere egin dute gazteek. Billabonako gaztetxea ez da jaio berria, 1990. urtean jaio zen alajaina. Gazte batzuk elkartu eta medikuaren kontsulta zaharra okupatu egin zuten. Kontzertu mordo bat, futbol txapelketak, eta igandero, bideo proiektzioa antolatzen zuten Kultur Etxean: "Laguntalde jatorrak sortu ziren ondorioz, harremana zegoen herriko gazteen artean".

esan digute gaztetxearen sorrera garaiko lagun batzuek. Baina urte pare batera, gauzak okertzen joan ziren. Udalak hilabeterako itxi egin zuten gaztetxea, eta horrek, garai hartan gaztetxean ibiltzen zen batek adierazi digunez, gaztetxea piskanaka-piskanaka gainbeheratu egin zuten. Askotan erlazioan izan da Billabonako gaztetxea droga eta istilu gehiagorekin, baina kontu horiek egiak baino zurrumurruak zirela esan digute, "drogaren zain gaztetxearen ondoko petrilean egoten zirelako, ez besterik". Egun, kontzertu bat edo beste antolatzen dute gaztetxean eta betiko gazteak biltzen dira bertan.

"GAZTEK BEREN ASMOAK AURRERA ERAMATEKO DUTEN LEKUA DA"

"NORBERAK NAHI DITUEN KARTELAK JARTZEKO ESKUBIDEA DU, GUZTIOK ERABAT ADOS EZ EGON ARREN"

LOKAL FALTA ADUNAN

Adunaraino joan gara bertako gazteen berri izateko. Hamasei-hogei urte bitarteko gazte koadrilak bazuen duela gutxi arte elkartzeko lokal bat. Orain, ordea, apaiz etxearena zen lokal hori hustu egin dute udalak etxea eraberritze zeko asmoa baitu. Zahartxoagoak diren gazteek osatzen dute Adunako Belkoain gazte elkarte. Herriko jaiak antolatzen, irteerak egiten, finean, gazteak elkartzeko dituen ekimenak aurrera eramaten egiten dute lan bertako kideek, "neskak guztiak". Esan digutenez lokal bat falta zaie gazte guztiari, bai gaztetxeonei nola zahartxoenei, biltzeko: "Gazteona izango den lokal bat eta guztiok elkartzeko gaituen leku bat eduki nahiko genuke".

ASTEASU

ITURRI ZAHARRETIK EDATEN

**Herriko garai bateko bizimodua eta ohiturak
biltzen ari da herriko talde bat**



**Josea Muguruza eta
Mikel Malz.**

ASTEASU HERRIAK BASSERRI, INGURUGIRO, HERRI BIDE EDOTA ELIZAREN INGURUAN DUEN ABERASTASUNA IKUSITA, HORI GUZTIA BILTZEKO TALDE BAT OSATU DA ASTEASUN. PROIEKTU ASKOREN ARTEAN, LEHENTASUNA HERRIKO ADIN NAGUSIKO PERTSONEKIN ELKARRIZKETAK EGIN ETA KONTU HORIEK GORDETZEA DA. LAN HORRI EKIN DIO "ITURRI ZAHARRETIK" IZENEKO TALDEAK. TALDEAK DITUEN HELBURU ETA ASMOAK ETA EGITEN DUEN LANA EZAGUTZEKO BERTAKO KIDEEKIN BILDU GARA.

Zertan datza zuen lanak? Noiz hasi zarete lan horretan?

Herriaren aberastasunaz jabetu ondoren proiektu ugari genituen buruan baina denak ezin ziren egin. Beraz, lehentasuna 65 urtetik 80 urte bitarteko pertsonekin elkarrizketak egitea zela erabaki genuen. Herriar bakoitza bere lanbide edota

garrantziarengatik hautatu dugu. Hau da, taxista, basserritar, ikazkin, edota gerrate garaian preso egon ziren herritar horien bizi-

"PERTSONA HORIEK FALTATZEN DIRENEAN GURE HERRIKO KULTURA GALDUKO DUGU"

modua, ohiturak eta istorioak ezagutu eta berreskuratu nahi ditugu. Izan ere, pertsona horiek hiltzen direnean gure herriko historia, kultura galduko dugu, eta beharbada, ezinezkoa izango da berriro berreskuratzea. Hori ekiditeko hasi gara lan honetan.

Nola antolatu duzue lan taldea?

Zortzi lagun inguru ari gara lan horretan. Lehendabizi elkarrizketatuarekin harremanetan jartzen gara

eta gure asmoa azaltzen diogu. Elkarrizketa egitearekin ados baldin badago gidoia prestatu eta elkarrizketatuari ondo dohakion egunean eta orduan elkarrizketa egiten diogu. Taldeko bi pertsona joan ohi gara elkarrizketa egitera, eta gehienez, eguneko ordubete egoten gara berarekin. Elkarrizketa grabagailu batekin grabatzen dugu eta horrez gain, bi argazki ateratzen dizkiogu.

Zein dira lan hori egiteko aurkitu dituzuen eragozpen nagusiak?

Denboraren aurkako lan

bat dela. Pertsona nagusiak dira, eta beraiek dakitena berreskuratzen ez badugu galdu egingo da informazio hori guztia. Horrez gain, pertsona batzuk nahiko gorrak daude, ez daude kanpotarrekin harremanak izaten ohituta, edota grabagailuak beldurra ematen die. Beraz, baldintza horiek gure lana oztopa dezaketen arren, elkarrizketatuei erretasunak jartzen saiatzen gara lana aurrera eramanez ahal izateko.

Zein motatako laguntza izan duzue?



Lan horretan jardungo genuela erabaki bezain pronto hasi ginen bilerak egiten eta beharrezko pausuak ematen. Gauzak horrela, Teresa Del Valle antropologoak elkarrizketaren teknikak zein izan behar duen azaldu digu eta Fermín Lizarraren laguntza ere izan digu. Horrezaz gain, Asteasuko Udalak dirulaguntza emango digula esan digu.

Zenbat pertsoneri egingo diezue elkarrizketa?

Cure hasierako asmoa 24 elkarrizketa egitea da. Zenbaitek gauza asko izango du kontatzeko eta elkarrizketa luzeagoak izango dira. Guk proposatu ditugun pertsona horiekin harremanetan jarri ondoren jakingo dugu nor dagoen elkarrizketa egiteko prest eta nor ez. Guretzat lan mota hau berrria da, izan ere, pertsona bakoitzaren bizimodua ezberdina izan da eta beraz, pertsona bakoitza mundu

bat da. Oraindik lau elkarrizketa baino ez ditugu egin.

Zein dira lan horren helburuak?

Helburu nagusia Asteasuko historia, kultura mantentzea da. Izan ere, azken urtetan gertatu diren aldaketa horiekin guztiakin gure ondorengoek ez dute gure aitona-amonak bizi izan duten hori ezagutuko. Adineko pertsona eta gazteen artean dagoen etena handia da eta etena gainditu nahi dugu. Cure herrian gertatu dena eta gure aitona-amonen bizimodua ezagutzea garrantzitsua dela iruditzen zaigu, izan ere, hori guztia gure herriaren kultura da. Esaera batek dioen bezala,

“GAUZA BAT IZAN DAITEKE GURE ASMOA, BESTEA, EZBERDINA, GUK DAKIGUNA, ETA BESTELAKOA, HERRI HONETAN BENE-TAN GERTATU DENA”

bere historia ahazten duen herria berriro historia errepikatzena zigorituta dago. Lan horretan hasi berriak gara eta lan horren emaitza eta ondorioak zein izango diren jakiteko azkarregi da oraindik. Gainera, gauza bat izan daiteke gure asmoa, bestea, ezberdina, guk dakiguna, eta azkenik, bestelakoa, herri honetan benetan gertatu dena.

Zer egingo duzue bilduko duzuen informazioarekin?

Oraindik zehazteke dago. Lana bukatu ondoren informazio hori txukun gordetzea izango da hurrengo pausua. Hala ere, oraindik lan asko dago egiteko eta denborarekin erabakiko dugu zer egin.

Azal ezazue elkarrizketen bidez ezagutu duzuen istori, kontu bitxiaren bat.

Zenbait herritarrek ezagutuko dute baina bada kontu polit bat. Izurtzu gainean mehategiak zeuden. Gauzak horrela, mehategi horietako produktua Andazarrate gainetik Zarrautzeraino garraiatzen

zen teleferikoen bidez, ondoren itsasoz Ingalaterrara eramateko. Bada, gainera, Andazarrateko gaineko teleferikoen argazkirik ere.

Bestelakorik?

Talde irekia dela azpimarratu nahiko genuke. Beren ideiak azaldu, lagundu edota parte hartu nahi duten herritar guztiak irekita dagoen taldea da. Hilean behin elkartzen gara, asteartean baina hurrengo bilera abenduaren 3an izango da, Asteasuko Kultura Etxean gaueko 21:30etan. Horrezaz gain, eskerrak eman nahi dizkiogu Asteasuko Udalarari laguntza emateagatik, eta garrantzitsua dena, eskerrak ematen dizkiegu elkarrizketatuei. Izan ere, beraiek gabe ezin baita lan hau aurrera eraman. Azkenik, lana burutzeko beren kolaborazioa eskatzen diegu herritar edadetuei.

IKER LIZARRIBAR ESPAINIAKO JUDO TXAPELDUNA

Espainiako 19 urtez beherako judo txapelketako irabazlea dugu Iker Lizarribar andoaindar gaztea. Hamazortzi urte besterik ez du baina bera baino nagusigo diren lehiakideekin lehiatu eta garaipen ugari lortu du. 96/97. urteko denboraldiari dagokionez, Euskadi mailako txapelduna da kategoria guztietan. Gainera, Espainiako 21 urtez beherako txapelketan hirugarren postua lortu du eta Euskadiko txapelketan, senior mailan, bigarren postua. Azkenik, aldeztatik aipatutako Espainiako 19 urtez beherako judo txapelketako irabazlea da. Kanariar irlak, Asturias, Katalunia eta Madrilako gazteekin lehiatu zen baina gazte horiek ezin izan zuten andoaindarra garaitu.

AURRERA BEGIRA

1.998ko martxoan egingo den Espainiako txapelketarako entrenatzen hasia da jada. Izan ere, Espainiako txapelketa irabaziz gero eta ondoren egingo diren txapelketean puntu ugari lortuz gero, Europako txapelketa edota mundu mailako txapelketara joateko aukera izango luke. Horrezaz gain, 1.998. urterako kategoriak aldatuko dira txapelketetan; 100 kilotik bera eta 100 kilotik gorako mailak bereiztuko dira eta Ikerren alderako izango da aldaketa. Orain arte Iker 95 kilotik gorako lehiakideekin lehiatu da eta zenbaitetan lehiakideen arteko aldea izugarria zen. Gauzak horrela, hurrengo urtean, 100 kilotik berako




lehiakideekin lehiatuko da soilik. Zorionak Iker garaipen berri horregatik eta zorte on 1.998. urteko txapelketetan!

BILLABONA

TXIRRINDULARITZA AZTERGAI

Irrintzi elkarteak antolatutako txirrindularitzari buruzko III. Kultur-Ihardunaldiak txirrindularitzaren munduko txirrindulari, kazetari eta zaletu ugari bildu zituen astebe- tez. Txomin Perurenari eginiko omenaldiak eta argazki erakusketak komunikabide- tan oihartzun handia izan badu ere, beste hainbat gai aztertu dira egun horietan. Hala nola, txirrindularitzari buruzko prentsa, afizionatuetatik profesioalera pasatzeko bidea eta Donostiako Mundiala.

Donostiako Mundialari buruz ba- lorazioak egiterako garaian Jaime Ugarte, antolatzaileetako bat, hasarre azaldu zen bertako komunikabide batzuekin. "Atzerritar prentsa Mundialaren antolaketa goraipatu duen bitartean, bertako lagun diren komunikabideek eragozpenak eta salaketak egin dituzte. Horrezaz gain, munduko afizio one- nari etxera Mundiala ekarri eta trafiko arazoekin edo, beldurtuta etxean geratu da" azaldu zuen Jaime Ugartek. Izan ere, Mundiala prestatzen hasi zirenean, duela lau urte, Indurain eta Abraham Olano txirrindulariak bertan izango zirela uste zuten. Bietako inork parte hartu ez izan- nak eta etxeko txirrindulariek garaipena lortzea zaila izango zutela iritzita txirrindularitza zaletuek Mundiala telebistatik ikustea nahiago izan zutela adierazi zuen.



AFIZIONATUAK

Afizionatu izatetik profesioalera saltoa izenburupe- ko mahainguruan, Haimar Zubeldia eta Pedro Horrilo gazte txirrindulariak izan zi- ren, besteak beste, gonbidatuak. Hurrengo denboraldian profesio- al mailan lehiatuko di- ren gazteek beren ibilbidea azaldu eta denboraldirako dituzten asmoak adierazi zituzten. Afizionatu maila- ko taldeetako zenbait zuden- darik azpimarratu zuen, garai- pena lortzea ez dela garantzitsua.

Nahiz eta garaipenak eragina izan deza- keen, profesioalera pasatzeko txirrindulari osoa iza- tea, maila guztietan ondo moldatzea, eta pertsona gisa cdozein egoeratar moldatzen dakien gaztea izatea ezin- bestekotzat jo zuten zuzendariek. Gauzak horrela, Peio Arrituinandia gazteak garaipen ugari lortu arren, profesioalera ez dela pasa azaldu zuten bi gazteek. Gaine- rakoan, eztabaidak edota mahainguruak arrakastatsuak izan ziren. Gonbidatu guztiak agertu ez baziren ere, azal- du zirenak beren ikuspuntua edota esperientziak kontatu zituzten eta jarraitzaileek gustura jarraitu zituzten beren hitzaldiak.

ANDOAIN

LEITZAU ZIKLOTURISTAK, HAMAZAZPI URTE PEDALEI EMATEN

HERRIAN ZIKLOTURISTA ELKARTERIK EZ ZEGOENEZ DONOSTIAKO GURUTZE ELKARTEKO KIDE ZIREN HOGEI ANDOAINDARREK ANDOAINEN ZIKLOTURISTA TALDE BAT SORTZEA ERABAKI ZUTEN. GAUZAK HORRELA, LEITZAU ZIKLOTURISTA ELKARTEA SORTU ETA ASTEBURURO IRTEERAK ANTOLATZEN HASI ZIREN. HAMAZAZPI URTE ONDOREN, HASIERAKO ASMO ETA ILUSIO BERBEREKIN JARRAITZEN DUTELA LANEAN ADIERAZI DIGU EGUNGO IDAZKARIA DEN MARTIN IZAGIRREK



Leitzaur taldearen lehenengo irteera.

Zenbat pertsona zaudete Leitzaur zikloturista taldean? Nola antolatzen zarete?
Errepideko bizikleta, BTTa eta konpetizio txirrindularitza motak bereiztu ditugu taldearen barruan. 150 kide izatera ere iritsi gara, baina azken urtetan kideen kopurua mantentzen ari da: egun 109 kide gara. Konpetizio mailan 22 gaztek hartzen dute parte eta kirol zuzendari bat ere badugu. Horrezaz gain, aipatu beharrekoa da BTT mailan gazte ugari hartzen dutela parte. Izan ere, egungo kide gehienak oso gazteak dira.

Emakumezkoak ba al da taldean?
Momentu honetan ez. 1.980. urtean, sortu zen urtean, emakume ugari hasi zen bizikletan ibiltzen. Garai horietan

talde handia elkartzen zen eta kanpogan egiten ziren irteretara joan ohi ginen. Zenbait urtetan, "Ruta del vino" izeneko proban talde bereko parte-hartzaile gehien irtecegatik sariak jasoen genituen.

Nola antolatzen dituzue urteko irteerak?
Urtero egutegia aldatu egiten dugu. Aurreko urteko irteerak aztertu, eta bizikletan ibiltzeko errepide egokienak aukeratu, zuzendaritzak, urteko egutegia zehazten du. Denboraldia martxoan hasi eta urrian bukatzen da, 30 irteera dira guztira. Finalista izateko ide bakoitzak 16 irteeretan har tu behar du parte. Pirineotara, "La Quebrantahuesos" eta "Liga Vasca" gisa ezagutzen diren probetara joan ohi gara urtero. Orain ari gara 1.998. urterako egutegia zehazten eta antolatzen.

Zen diru iturri dituzue?
Duela bi urte arte oso justu ibili gara

diruz. Taldeko kideek urteroko kuota bat jartzen dute, eta horrezaz gain, dendetan publizitatearen truke diru eskean ibili izan gara. Nahiko diru gutxi izan dugu orain artean. Azken bi urteotan, Andoaingo kirol patronatuak dirulaguntza eman digunez taldeko maillota eta jantzi berriak egin ahal izan ditugu. Hala ere, etxe komertzialen dirulaguntzari esker mantendu da taldea urte hauetan zehar. Baina irteeraz gain, bestelako ekintza edo aktibitatek ezin dugu antolatu, dirurik ez baitugu.

Zen asmo dituzue etorkizunarako?

Etorkizun hurbilera begira, orain bezala jarraitzea da gure asmoa. Urteko denboraldia zehaztu eta txirrindularitzarako dagoen zaletasun hori mantentzeko lanean jarraitzea. Etorkizun urrunera begira berriz, denborarekin ikusiko dugu zer egin.

**"PROBA BEREAN
TALDE BEREKO
PARTEHARTZAILE
GEHIEN IRTETEGATIK SARIAK
JASO DITUGU"**

Aiarri
EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
☎.: 300732
FAXA: 300731
DR. HUIZI, 15 1. ESK.

KIROL JANTZIAK
Litana
Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 ☎ 59 44 47
ANDOAIN

BILLABONA

Hazparneko pilotariak. 1929.



Hazparneko pilotariak Billabonako pilotarien aurka jokatu zuten lehen errebote partiduko argazkia da honako hau. Iparraldeko jokalariek eta Billabonako jokalariek 1929ko urriaren 17an jokatu zuten aipaturiko partidua, eta Billabonako pilotariak irabazi zuten saioa. Garai hartan apaiz asko ibiltzen zen pilotan jokatzen. Argazkiko apaiza da horren adibide. Gainera, Joxan Jauregi Behar Zana elkarteko kideak esan digunez, apaizek beren sotana eta guzti jokatzen zuten. Izan ere, solanarekin pilota gelditu egiten zuten. "hankak zabaldu eta bertan gelditzen zuten pilota". Beraz, tranpatxoak egiten iaioak ziren orduko apaizak!

Hazparneko pilotarien izen-abizenak:

Ezkerretik eskuinera: Jean Etxeberri, Pierre Madre, Etxeberria apaiza, Jean Carmendrail eta Andrain.

Billabonako pilotariak, ez dira argazkian agertzen. Baldomero Lertxundi, Antton Egaña, Julio Albea, Rosendo Carate eta Juan Barbe izan ziren.

OKERRAK ZUZENTZEN: Aurreko alean, "Erretratu zaharra" atalean, Andoainen eslegun gizenan egiten zen festako argazki bat argitaratu genuen. Gailetak eta ardo goxoa banatzen ari zen gizona agoazila zela genion, baina hori ez da zuzena. Bixente Olanek zuzendu digunez, gizon hori Ignacio Aizpurua zen, herriko txistularia.



ALBA

aseguruen


Pío Baroja, z/g behean. 20140 ANDOAIN
Fax eta Tel. 943-30 06 08 Pos. Ku. 111. 20150 Billabona

- Aseguru orokorrak, bereziki autoak. % 50a bitarteko beherapenak onartzen ditugu.

Hilero auto baten aseguru zozketatzen dugu!

Beterriko Liburua

1997



KALEZULO

Jexumari Mendizabal

Argitaletxea: Alberdania

Generoa: gazte literatura

Prezioa: 1.900 pta.

Orrialdeak: 132 orri.


bikaina
ona
egokia

Hain hurbiletik ezagutzen duen

gazteen munduko zuloetan barrena abiatua da Jexumari Mendizabal Leizezulo bere lehenengo lana argitarara eman zuenetik, baina orain fikzio hutsari ihes egin ezagun bide duen Irungo gazteen droga munduko errealitatearen islada ekarri nahi izan du bere obra labur honetara. Asteburu baten bueltan biltzen ditu Asier protagonistak eta bere bi lagunek biziriko gertakariak. Dama zuriaren pentzutan dabilta hiruak, estekaturik, eta Asierren hizpidez izango dugu asteburu horretako berri, Irungo kaleetan barrena, mugako ibai hegieta, Mosku auzoko gaugiroan edo Junkaleko elizaren ingurumariako arratsaldeetan hiruentzat erabakigarri izango baita, Asierri dagokionez dama horren xarma saihesteko ahalegina egiteko erabakia hartzeraino.

Cure gizartean presentzia handia duen arazo bati heldu dio Mendizabalek eleberrri labur honetan: zerk eraman ohi duen gaztea bere nerabezaroan Dama zuriaren, heroina edo kokainaren menpeko etxalderaino? Asier protagonistarengan dakuskigu bidaia horren urratsetariko batzuk, egileak azaletik baino adierazten ez duen arren zein diren bidai horren arazoak eta klabeak. Kinka horren bizipenak eta hausnarketa batzuk azaldu nahi izan ditu, bizipen zehatz batzuen inguruko erreakziorik funtsezkoenak, hala inguruarekiko protagonistak dituen harremanci nola baita menpekotasunak eragiten dizkion hausnarketei dagokienez ere.

Euskararentzat kaleko hizkera propioa lantzen ahalgindu da, bere ikutu personalaz, Mendizabal, eta emaitzak, gutxienez, interesgarri gertatzen dira batzuetan lexiko eta joskera mailan. Eleberrian azalduriko egoerak beren ispilu dituzten gazteentzat egon liteke erreferentzia aintzakorik bertan, eta hori ez da gutti gisa horretako gaiak hain urri jorratu dituen gure literaturan.



Zailagoa egingo zaizue, beharbada, oraingo txoko hau zer den eta zein herrietako den asmatzea. Aldaketa handiak egin dituzte azkenaldian pareta hauek gordetzen edo babesten duten tokian. Aiurri goitik behera irakurtzeko ohitura baldin baduzue, behin baino gehiagotan irakurriko zenituzten aldaketa edo lan horien berriak. Pista moduan, Beterri aldean baino Aiztondo aldean dagoen herri bateko txokoa dela aurreratuko dizuegu. Eta hori bai, lasaitasuna eta bakea nahi duenak herri horretara joatea besterik ez du egin behar.

Oraingoan **Ernaitzak**, Andoaingo liburudendak, eskainiko du oparia: "**Zifrak eta letrak**" izeneko **jo-kua** emango dio saritzat lehiaketan parte hartu, asmatu eta aukeratua izango den lagunari.

Beraz, badakizue erantzuna zein den argi baldin baduzue bidal ezazue eskutitza zuen izena, telefonoa eta erantzun zuzen jarriz honako helbidera:

Doktor Huizi 15-1. eskubia, Andoain.

ERNAITZA

LIBURUDENDA

Euskal eta erdal literaturako azken nobedadeak, opariak eta oleoz margotzeko gaiak.

Zumea kalea, 2 - ANDOAIN Tel. 59 24 59

ANTZERKIA

ANDOAIN

Azaroak 29: Ados taldearen "Lamiak" antzez-lana. La Sallen 20:00etan.

BILLABONA

Abenduak 5: Palleti taldearen txontxongilo emanaldia (Mexiko). "Rosendo el Rinoceronte" antzez-lana. Gurea zinema aretoan arratsaldeko 16:00etan. Sarrera 400 pezeta.

ERAKUSKETA

ANDOAIN

Azaroak 24-abenduak 5: Corrado Masacci artistaren txontxongilo erakusketa.

LEHIAKETA

ADUNA

Azaroak 30: Aiztondoko I. ipuin lehiaketako sari banaketa arratsaldeko 16:00etan Takolo, Pirritx eta Porrotx-en eskutik

MUSIKA

BILLABONA

Abenduak 12: Anari kantariaren musika kantaldia. Gurean 22:30etan. Sarrera 600 pezeta.

LARRAMENDI BAZKUNA

ASTEASU

Abenduak 2: Larramendi Bazkuna eta Aiurri-ren bilera. Kultur Etxean gaueko 21:30etan.

IRTEERAK

ANDOAIN

Azaroak 30: Andoaingo Mendigoizale taldeak antolatuta Santa Elena mendira irteera.

Abenduak 14: Andoaingo Mendigoizale taldeak antolatuta Monjardin mendira irteera.

Abenduak 13: Santa Luzia egunerako txangoa Aiztondo bailaran. Izena emateko deitu 693930 telefono zenbakira (Ainhua).

HAURRENTZAKO IRTEERAK

Azaroak 30: Andoaingo Euskalduna Mendigoizale taldeak antolatuta Burretza mendira irteera.

Abenduak 14: Andoaingo Euskalduna Mendigoizale taldeak antolatuta Belkoain mendira irteera.

ZINEMA

BILLABONA

Abenduko programazioa: «Cara a Cara», «Martin Hache», «Full Monty», «La boda de mi mejor amigo», «La teniente O'Neill»


ABIADURA HANDIKO TRENAREN AURKAKO FESTA ETA HITZALDIAK

DONOSTIAN


Azaroak 29: Egun osoko jaia

Abenduaren 3tik 17ra hitzaldiak eta diapositiba emanaldiak Donostiako zenbait elkartetan.

KOMIKIA




ANDOINGO GAZTETXEAREN 12+1 URTEMUGA. GAZTETXEAK BIZIRIKI!!



Euskal Herrian okela ona dugu

EUSKO LABEL



EUROPAKO ELKARTEAREN
PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUTAKO KANPAINA

Kalitateko Euskal Labelarekin identifikaturik eta ziurtaturik iristen zaio okela kontsumatzaileari

KALITATEKO EUSKO LABELA DUEN ABELGORRI OKELA

Kalitateko Eusko Labela duen Abeltzari Okela Baimendutako Harategietan bakarrik saltzen da

ANDOAIN

**-CARNICERÍA JOSÉ RAMÓN JAUREGI
AGUSTÍN DE LEIZA, 25**

HERNANI

**-PINEDA HARATEGIA
KARDABERAZ, 32**

BILLABONA

**▶ MIKEL HARATEGIA
ARROA, 12**

● Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur gorri batez (▶) adierazitako Harategi Baimenduek ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

G A N B A R A



T A B E R N A

Arteta Kalea 5-7 beheak. ☎ 59 19 71

ANDOAIN

Kontzertuak,
Erakusketak
Antzerkia...



V T T V M

ZILARRA
OPARIAK

KALE NAGUSIA, 12
TELF. 59 18 63 ANDOAIN

Talleres KARRIKA, C.B

Ubilluts auzunea. 56.Pol. 10. zenb.

☎ 30 02 14 - 20140 ANDOAIN

(Gipuzkoa)



• AUTO KONPONKETA

● BILGUNE BERDEA